

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

HIRIKO ELKARTE ETA ERAGILEEK EGINDAKO LOKAL ESKAEREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko urriaren 16an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2002. urteko Herri Partaidetzako Bulegoak, Herri Entitateen Erregistroa kudeatzeko administrazio unitate gisa, lan dinamika bat proposatu zuen, eta horren xedea zen hainbat sailetakoa udal teknikarien arteko aldizkako bilerak egitea, hiriko irabazi asmorik gabeko elkarteentzako udal lokalen lagapena koordinatzea.

Urteak aurrera, irabazi asmorik gabeko elkarteei lokalak lagatzeari lotuta sortutako jardueren koordinazioa gune gisa sendotu eta departamentuen arteko lan mahai eta talde gisa eratzen joan zen, lokalak uzteko prozesu osoa diseinatzeko, planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko eginkizun guztiak kontrastatzen eta partekatzen zituena.

Horiek horrela, departamentuen arteko mahaiak bere ibilbidean izandako etengabeko hobekuntza prozesuari jarraipena emateari begira, udal baliabideen eraginkortasuna bermatzeko eta elkarteen ekintza indartzeko, 2015eko maiatzaren 5eko Tokiko Gobernu Batzordean Udal Lokalak Lagatzeko Udal Batzorde Teknikoa eratzea erabaki zen. Baina, legealdi berria hasi zenetik, Udal Lokalak Lagatzeko Udal Batzorde Teknikoaren inguruko berririk ez dugu jaso.

2016an zehar eragile eta elkarte asko izan dira lokal baten beharra adierazi dutenak. Behar hori ikusita, Gizarte Ekintzako Kontseiluko partaideek Udalak hutsik dituen lokalen zerrenda eskatu zuten iaz.

Hain zuzen ere, 2017ko urtarrileko batzordeetan honi buruz galdetu genion Lankidetzako zinegotzi ordezkariari eta honek erantzun zigun 100 eskaera inguru itxaron zerrendan zeudela. Delegatuak aipatu zuen hutsik zeuden lokalen zerrenda eginda zegoela, baina irizpideak finkatzea falta zela, eta hori argi izan arte ez ziotela zerrendarik pasako Gizarte Ekintzako Kontseiluari.

Gizarte Ekintzako Kontseiluak eskaera egin zuenetik urtebete joan da eta oraindik ere ez zaio informazioa helarazi. Hilabete honetako batzordeetan delegatua interpelatu dugu gai honen inguruan, baina ez ditu gure zalantzak argitu. Izan ere, ez du jakinarazi noiz erantzungo den Gizarte Ekintzako kontseiluaren eskaera, urtebeteren ondoren, ezta zein lehenasun zehaztu dituen Udal Gobernuak Presidentziatik, lokalen lagapena egiterakoan.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 -
20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari gardentasunez adieraz dezala Udalaren lokal hutsen zerrenda.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Ekintzako Kontseiluak duela urtebete egindako eskaera erantzun dezala.

Donostian, 2017ko urriaren 20an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia